

# Euskadin bizi diren pertsonen osasunak behera egiten du euren posizio sozioekonomikoak ere behera egiten duen heinean

Yolanda González-Rábago  
eta Unai Martín



Euskadin, zure osasunak okerrera egiten du zure klase sozialak behera egiten duen heinean, ikasketa maila baxuagoa duzunean edo bizi zaren tokiak gabezia sozioekonomiko gehiago dituenetan. Naiz eta osasun okerragoa, baiki, nabarmenagoa izan maila sozioekonomiko baxuenetan, desberdintasunak klase sozial eta hezkuntza maila guztiei eragiten die.

**Iradokitutako aipua:** GONZÁLEZ-RÁBAGO, Y. MARTÍN, U. (2019) *Euskadin bizi diren pertsonen osasunak behera egiten du euren posizio sozioekonomikoak ere behera egiten duen heinean*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena- Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/desberdintasun-sozialak-osasunean/>




Euskadin osasuna ez da modu ekitatiboan banatzen. Osasunean desberdintasun sozialak ematen direlako da hori horrela. Aipatu fenomenoak, aztertu izan diren herri guztietan gertatzen da. Dokumentu honetan, euskal biztanleek eurenganako osasunean hautemandakoari buruzko datuak azaltzen dira, desberdintasun sozial motaren arabera banatuta: klase soziala, hezkuntza maila, bizitokiaren gabezia sozioekonomikoaren maila eta hilabete amaierara iristeko den zailtasuna. Osasun adierazle modura osasunaz den pertzepzioa erabili izan da, zeinak pertsonen euren osasunaren gainean duten balorazio subjektiboa adierazten baitu. Adierazle hori erabiltzen da gehien herrietako osasun egoera neurtu behar denean, estu loturik baitago beste adierazle batzuekin, hala nola gaixotasun kronikoak pairatzearekin, osasunarekin lotutako bizitza-kalitatearekin, osasun zerbitzuak erabiltzearekin edo, are, heriotza izateko aukerarekin.

Euskadin bizi direnen osasun egoera, oro har, ona da. Egitez, gizonezkoen %85,4k eta emakumezkoen %81,8k uste du osasun ona edo oso ona duela. Egoera nagusi hori, ordea, ez dago desberdintasunetatik salbu.

Hala, osasun egoera ona duen herritarren portzentajea baxuagoa da klase sozial baxuenen artean. 1. grafikoan ikus daitezenez, osasun onaren prebalentzia murrizten doa hierarkia sozialean behera goazen heinean. Jaitsiera hori, gainera, gizarteko gradiente osoan ematen da. I. klase sozialaren (altuena) eta V. klase sozialaren (baxuena) artean den tartea 8,7 puntu portzentualera heltzen da emakumeengan eta 12,8 puntura gizonengan.

### 1. GRAFIKOA. HAUTEMANDAKO OSASUN EGOERA ONAREN ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE01N (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Herritarren ikasketa maila hartzen badugu kontuan, hor ere osasuna gradiente sozialaren arabera banatzen da. 2. grafikoak erakusten du nola osasun egoera onarekin den pertsona kopuru handiena ikasketa maila handiena dutenen artean ematen dela, hots, bigarren mailako edo unibertsitateko ikasketak dituztenen artean. Jauzirik garrantzitsuenak, gizonezkoen nola emakumezkoen artean, beheko bigarren mailakoak biltzen dituen taldearen eta goiko bigarren mailakoak dituztenen artean ematen da, ia 7 puntu portzentualen aldea dagoelarik gizonezkoen artean eta 11 puntu baino gehiago, berriz, emakumezkoen artean.


## 2. GRAFIKOA. HAUTEMANDAKO OSASUN EGOERA ONAREN ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018



ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE0IN (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Gizarte-patroi berbera errepikatzen da osasun desberdintasunak bizitokiak dituen gabezia sozioekonomikoen arabera aztertzen direnean, hau da, aztertutako desberdintasun mota ez denean oinarritzen ezaugarri pertsonaletan, baizik eta pertsonak bizi diren inguruan. Hala, gabezia handiagoko tokietan bizi den herritarren portzentajeak behera egiten du osasun onari dagokionez. Eta bizitokiaren maila sozioekonomikoaren arabera osasun desberdintasunak ageriagoak dira emakumezkoetan gizonezkoetan baino.

## 3. GRAFIKOA. HAUTEMANDAKO OSASUN EGOERA ONAREN ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, BIZITOKIAREN GABEZIA SOZIOEKONOMIKOA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




I: GABEZIA MAILA BAXUENA - V: GABEZIA MAILA ALTUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE0IN (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Bukatzeko, euskal herritarren osasun egoera desberdintasunak ageri zaizkigu hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztela dioten etxeetan bizi diren pertsonak halako zailtasunik ez duten etxeetakoekin alderatuz gero. Izan ere, hilabete amaierara iristeko zailtasunik ez duen etxeetako jendeak maizago ageri du osasun ona zailtasun ekonomikoak dituzten etxeetakoekin alderatuz. Alde hori gizonezkoengan zein emakumezkoengan, biengan gertatzen da, nahiz eta azken horiengan handiagoa izan desberdintasuna, 10 puntu portzentaletik gorakoa, alegia.

#### 4. GRAFIKOA. HAUTEMANDAKO OSASUN EGOERA ONAREN PREBALENTZIA, ETXEAN HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUN EKONOMIKOEN ETA SEXUEN ARABERA. EUSKADI 2018



ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE01N (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Konklusio modura, osasun egoera okerragoa dute talde sozioekonomiko kaltetuenetakoek, desberdintasun motaren arabera banatuta, izan desberdintasun indibiduala –klase soziala edo hezkuntza maila–, izan ingurukoa –bizitokiaren maila sozioekonomikoa–, izan etxeetako egoera ekonomikoarekin lotutakoa.



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)